



GOBERNU BILERA

Prensa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoak 30

Vitoria-Gasteiz, 30 de marzo de 2010

HERRIZAINGO SAILA

Dekretua, Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren egitura organikoarena

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren Curricula Sortu eta Ezartzeko proiektua aldatzen duena.

Agindua, honen bidez deialdia egiten da abenduaren 17ko 298/2002 Dekretuan jasota dauden laguntzak 2010. urte honetara ere ekartzeko, dekretu horretan arautu baitzen bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko jarduerak burutzeko laguntzak emateko modua.

Agindua honen bidez dei egiten zaie Sailarekin lankidetzan aritu nahi duten erakunde publiko eta pribatuei, lanbide-hezkuntzako irakasleen etengabeko prestakuntzarako plana garatzeko proiektuak aurkez ditzaten.

Agindua, honen bidez dei egiten zaie unibertsitatean diharduten ikasleei, 2010. urteko udan ingelesa, frantsesa edo alemana bereganatzeko ikastaroetarako laguntzak eskuratzeko modua izan dezaten.

Erabakia, hitzarmen bat sinatzeko Euskal Herriko Unibertsitate eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoarekin laguntzak eta beka emateko berezko master honetan: Nazioarteko Lankidetzaren Deszentralizatua: Bakea eta Garapena. Agenda Globalaren Azterketa eta Kudeaketa, Nazio Batuen Sistemaren Esparruan.

INDUSTRIA, BERIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Erabakia, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietateari (SPRI) 1989ko abenduaren 29an Jaurlearitzaren Kontseiluak hartutako Erabakiaren bitartez eman zitzaion mailegua amortizatzeko luzapena ematekoa.

LAN ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Dekretua, Gizarte Zerbitzuetako Erakunde arteko Organoa sortzen duena.

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Erabakia: Behi-esnea saltzeko makinak instalatzeko zuzeneko diru-laguntza ematen zaio.

Erabakia, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluari zuzeneko diru-laguntza ematekoa, produktu ekologikoen sektorean Komunikazio eta Merkaturatze Plan Integrala egiteko

IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK

Herrizaingoa: kargu-kentxe eta izendapenen zerrenda.

Kultura Saila: kargu-kentze eta izendapenen zerrenda.

Herrizaingo

EUSKAL HERRIKO POLIZIAREN IKASTEGIKO EGITURA BERRIA ONARTU DUTE

- Polizia-prestakuntzaz gain, babes zibilarekin, larrialdiei aurre egitearekin eta segurtasun pribatuarekin lotutako gaiak irakatsiko dira

Gobernu Kontseiluak Arkautiko Ikastegiaren barne egitura berria zehazten duen Dekretua onartu du gaur. Dokumentuan jasotzen denez, organigrama berria segurtasun publikoa bere osotasunean hartzearen emaitza da; horrek herritarrei laguntzeko eta horiek babesteko zerbitzu guztiak modu eraginkorrean integratu beharra ekarri du, polizia-baliabideei larrialdiei aurre egitekoak eta babes zibilekoak batuz.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian ertzainak eta udaltzainak prestatu dituzte 1982an sortu zutenetik, baina esfortzu nagusia Ertzaintza hedatzera zuzendu dute. Aurrerantzean, zeregin horiez gain, segurtasun publikoari lotutako esparru berriak ere hartuko ditu bere gain, larrialdiak eta babes zibila bereziki. Erronka honen aurrean Ikastegiaren barne gaitasuna optimizatzeko, heziketa zentro hau berregituratu beharra dago, Herrizaingo Sailaren ustez. Egoera berriak Ikastegiaren jarduera handitzea ekarriko du, orain artekoei zeregin berriak gaineratu behar baitzaizkio. Halaber, segurtasun alorrean ikerketarako zentro gisa duen erabilera handitu beharra dago.

Gaur onartutako Dekretuaren arabera, EAEko polizia taldeetako kideak trebatzea eta hautatzea, babesa eskaintzen duten erakundeei laguntzea (batez ere, segurtasun pribatuaz, larrialdiei aurre egiteaz eta babes zibilaz arduratzen direnei), segurtasun alorreko ikerketak egitea eta segurtasun mailako ezagupenak hedatzea dira Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren ardura nagusiak. Ikastegiaren funtzioak zein diren ere zehazten du Dekretuak; Ertzaintzan zein Udaltzaingoetan sartzeko aukeraketa prozesu osoa, barne-igoerak eta agenteen espezializazioa izango ditu zeregin nagusi. Horretarako, udal administrazioekin eta segurtasuna bultzatzeko lan egiten duten erakunde publiko eta pribatu guztiekin arituko da elkarlanean.

Dekretuak, azkenik, elkarrekin lotzen ditu Arkautiko Ikastegia kudeatzeko ardura duten barne organoak, bertako gobernua (Kontseilu Errektorea eta Zuzendaritza), zuzendaritza mailako talde kudeatzaileak, eta administrazio sail ezberdinak (ikerketa eta plangintza, kudeaketa akademikoa, administrazioa eta zerbitzuak, erregimen juridikoa, kudeaketa ekonomikoa eta gai orokorrak, barne). Dekretuak egitura berri horretako organo bakoitzak izango dituen ardura eta gaitasunak jasotzen ditu.

Dekretu hau onartuta, Herrizaingo Sailak funtsezko urratsa eman du segurtasunaren alor guztien inguruan heziketa osoa eskainiko duen zentro bihurtzeko Arkautiko Ikastegia. Horretarako, orain arte zuen oinarritzko zereginaz (polizia-prestakuntza) gain, aurrerantzean materia eta zerbitzu aukera zabala eskainiko du, babes zibilarekin eta larrialdiei aurre egitearekin zein segurtasun pribatuarekin eta pertsonak babestearekin lotutako gaiak eskainiz.

HERRIZAINGO SAILEAN ZUZENDARITZA POSTUETARAKO HIRU IZENDAPEN ONARTU DIRA

- Arkautiko Ikastegiko, Administrazio eta Zerbitzuko eta Larrialdiei Aurregiteko zuzendari berrien izendapenak

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu Herrizaingo Saileko hiru Zuzendariren izendapenak. Euskal Herriko Polizia Ikastegirako dira karguetako bi eta hirugarrena, Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzarako. Aipatutako izendapenak Arkautiko Ikastegiko egitura berria zehazten duen, eta onartu berri den, Dekretuaren ondorio zuzena dira. Dokumentuaren arabera, Ikastegiak betebeharrak eta zerbitzu berriak eskainiko baititu egungoek gain.

Elena Moreno Zaldibar izango da Euskal Herriko Polizia Ikastegiko zuzendari berria. Donostiar honek Zientzia Kimikoko ikasketak egin zituen EHU-n eta Laneko Arriskuaren Prebentzioko master bat ere badu. Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurregiteko Zuzendari kargua izan du orain arte. Enpresa pribatuaren hasi zuen bere lan munduko ibilbidea; ikerketa eta garapen lanak egiten jausen zuen. Orain dela hamasei urte, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko sailean sartu zen, Kontu-hartzailera aktiboko arduradun lanetan. Harrezkero, errekurtsoak kudeatzeko betebeharrak teknikoekin arduratu da larrialdi egoera anitzetan (erreskateak, bilaketak, suteak eta industrietako ezbeharrak, besteak beste). Era berean, EAEko larrialdien azpiegiturako antolaketa eta garapen lanak ere egin izan ditu: enpresetan larrialdi planak ezarriz, salbamendu-taldeak antolatuz, suteen aurkako kanpainak sustatuz, boluntario eta zerbitzu berezietako taldeak osatuz, larrialdietarako kartografia egokituz, eta abar.

Jose Luis Ramos Euskal Herriko Polizia Ikastegiko Administrazio eta Zerbitzu Saileko zuzendaria izango gaurtik aurrera. Ikastegiak hemendik aurrera izango dituen jarduerak berriak kontuan hartuta sortu den kargua da hau. Izan ere, polizia-prestakuntza gain, babes zibilarrekin eta larrialdiei aurre egitearekin zein segurtasun pribatuarekin eta pertsonak babestearekin lotutako materia eta zerbitzu zabala eskainiko du ikastegiak aurrerantzean.

Zuzenbidea, Politika-Zientziak eta Soziologia ikasketak egin zituen, Kriminologian diplomatuta dago eta giza baliabideen kudeaketa aurreratuko master bat dauka. Bere ibilbide profesionalen erantzukizuneko postuak izan ditu euskal Administrazio ezberdinetan. 1985ean hasi zen lan munduan Arkautiko Pertsonala eta Gizarte Arloaren arduradun gisa. Ostean, Justizia eta Osasun Sailetan zenbait kargu garrantzitsu izan zituen. 2001ean Arabako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko zuzendari izendatu zuten eta urte batzuk beranduago, EAEko beste administrazio batzuetako karguak hartu zituen. Aurtengo otsailera arte Herrizaingo Saileko Giza Baliabide saileko Zuzendaria zen.

Pedro Anitua Aldekoa izango da, bere aldetik, Larrialdiei Aurregiteko eta Babes Zibileko Zuzendari berria, Elena Moreno ordezkaturik. Goi-mailako ingeniari industrial titulua eta ingurumen ingeniari masterra duen 57 urteko gasteiztar honek Herrizaingo Sailean hasi zuen ibilbide profesionalari heldu dio berriro, babes zibileko teknikari gisa ardura handiko postu teknikoak izan

baitzituena bere gain 1982tik 1985era bitartean. Ondoren, zenbait zuzendaritzaren ardura izan zuen -larrialdiei aurreritateko esparrukoak betiere-Gasteizko Udalean, eta egun Herritarren Segurtasunaren Saileko Zuzendaria zen. 2002tik 2004ra bitartean Kataluniako Generalitateko Suhiltzaileen Dibisio Operatiboko Burua izan zen.

Lanpostu horietan guztietan, arrisku eta ezbeharren alorrekin lotutako lan ugari egin ditu, besteak beste, ikerketa teknikoak, proiektuak, txostenak, ikuskaritzak, ikerketak, ezbeharren kontrolak..., eta zeregin horiez gain, lantalde oso handiak zuzendu behar izan ditu.

Hezkuntza, Unibersitate eta Ikerketa

ONARRIZKO HEZKUNTZAREN CURRICULUMA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, onartu du Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumuma sortu eta ezartzeko proiektua aldatzen duen Dekretua.

Onartutako Dekretuak zehazten du Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzari dagokion curriculumuma eta nola ezarriko den xedatzen du, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko irakaskuntzak zehazten dituen oinarrizko legerian xedatutakoaren kalterik gabe.

Oinarrizko Hezkuntza bizitza osorako hezkuntzaren etapa komun eta derrigorrezkoa da eta Lehen Hezkuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak osatzen dute.

Dekretu hau Lehen Hezkuntza edota Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan aplikatuko da.

Hezkuntza, Unibersitate eta Ikerketa

1 MILIOI EURO BIZITZAN ZEHARKO IKASKETARAKO

Hezkuntza, Unibersitate eta Ikerketa Sailak proposatuta, Gobernu Bilerak bizitza zeharko ikasketei buruzko jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak arautzen dituen Dekretuan aurreikusita dirulaguntzak 2010eko deialdia arautzen duen Agindua onartu du gaur.

999.158 euroko laguntza honen helburua, ezagutzaren edozein esparrutan eta bizitza zeharko prestakuntzaren alorrean abian jarritako ikasketa erabilgarriari buruzko jarduerak diruz laguntzea da, 25 urte gorako pertsonen lanbide-kualifikazioa, konpetentzia, trebetasuna areagotzearen bitartez, hiritartasun aktiboa sustatzeko.

Erakunde arteko jardueraren objektu izan daitezkeen etengabeko prestakuntza-proiektuak bi eratakoak izan daitezke: batetik, interesatuek bakarka burututako ikasketei buruzko ekimen, ekintza edota jarduera zehatzak eta, bestetik, udal edo eskualde mailan, ikasketeei buruzko ekimen, ekintza edo jarduerak sustatu eta garatzen dituztenak.

Hezkuntza, Unibersitate eta Ikerketa

LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO PLANEAN LANKIDETZAN JARDUN NAHI DUTEN ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, gaur agindu bat onartu du, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten erakunde publiko eta pribatuei Lanbide Heziketako Irakasleen Etengabeko Prestakuntzako Plana garatzeko proiektuak aurkezteko dei egiten dien agindua.

Agindu honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan irakasleak prestatzen diharduten edo jardun nahi duten legez eraturako erakunde publiko eta pribatuei dei egitea da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan proiektuak aurkez ditzaten, Lanbide Heziketako Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Plana garatzeko, 2010/2011 ikasturterako 186.097 eurotako gehienezko kopuruarekin.

Hezkuntza, Unibersitate eta Ikerketa

UDAN ATZERRIAN INGELES, FRANTSES ETA ALEMANEKO IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2010eko udan atzerrian aleman, frantses eta ingeleseko ikastaroak egiteko unibertsitate-ikasleentzako dirulaguntzak deitzen dituen agindua.

2010eko udan atzerrian ingeles, frantses edo alemaneko ikastaro bat egiteko eta egonaldirako 275 dirulaguntza, bakoitza 1.800 eurokoa gehienez ere, deitzea du agindu horrek helburu. Dirulaguntza horiek bekadunak diren unibertsitate-ikasleentzat izango dira.

Hezkuntza, Unibersitate eta Ikerketa

5 BEKA IKASLE SAHARUIEN PRESTAKUNTZARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran eman dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Errepublikar Arabiar Saharai Demokratikoko Lankidetzaren Ministerioaren artean hitzarmen bat izenpetzeko baimena, "Nazioarteko Lankidetzaren Deszentralizatua: Bakea eta Garapena. Agenda Globalaren Azterketa eta Kudeaketa Nazio Batuen sistemaren barruan" masterrean beka eta ikasketak laguntzak emateko.

2009-2010 ikasturtean 5 beka, ikasle saharaiak hirugarren zikloko unibertsitate-programan prestatzeko, finantzatzea du hitzarmen horrek helburu, lankidetzaren humanitarioa eta herri saharaiaren hezkuntzaren esparruan garatzea sustatzeko.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio

JAURLARITZAK DONOSTIAKO TRANBIAREN KONPAINIAREKIN ELKAR HARTUTA LAN EGINGO DU HIRIKO GARRAIO KOLEKTIBOEN KUDEAKETA-ENPRESEN ELKARTEAREN URTEROKO BILTZARRA ANTOLATZEN

Jauralaritzaren Kontseilua 30.000 euroko diru-laguntza emango dio Donostiako Tranbiaren Konpainia SA sozietateari, ATUC, hiri-garraio kolektiboaren kudeaketa-enpresen elkartearen aurtengo biltzarraren antolaketan laguntzeko, izan ere, aurten Donostian egingo da biltzarra, irailaren 29tik urriaren 1era bitartean.

Biltzarra hiri-garraio kolektiboaren elkarteak antolatzen dituen ekitaldirik garrantzitsuenetakoa da, eta garraio publikoko operadore nagusienak hartu ohi dute parte bertan. ATUC izeneko elkarte hori Espainiako hiri handienetakoa garraio kolektiboaren ardura duten autobus, metro eta trenbide enpresa publiko nahiz pribatuek osatzen dute: bidaiarien garraioan diharduten autobus-enpresen % 78, metrokoen % 100 eta RENFEren aldirietako sare osoa elkartean sartuta dago.

Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren lehenetsuenetakoa bat da udalerrri guztietan mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta irisgarritasun unibertsala eta iraunkorra lortzea herritar eta giza talde guztientzat. Era berean, ekintza hau bat dator Euskadiko Garraio Iraunkorraren Gidaplanean jasotako helburu, estrategia eta ekintza-lerroekin, garraio iraunkorragoa lortzen laguntzen duen aldetik.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo

**JAURLARITZAK 10 URTEKO LUZAPENA EMAN DIO SPRI-RI 1989.
URTEAN EMANDAKO AURREKONTUA, 32,1 MILIOIKOA,
AMORTIZATZEKO**

Jaurlaritza-Kontseiluak hamar urteko epeko luzapena onartu du gaur Industriaren Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietateak (SPRI, S.A.) 1989. urtean jaso zuen mailegua amortizatzeko, 32,1 milioi eurokoa hain zuzen ere.

1989ko abenduaren 29an, Jaurlaritza-Kontseiluak 32,1 milioi euroko mailegua eman zion SPRI-ri, korriturik gabe eta 12 urteko eperako. Geroago, 2000ko abenduaren 26an, organo berak 10 urteko luzapena onartu zuen mailegua amortizatzeko.

Aukera guztiak baloratu ondoren, egoki iritzi zaio zorra luzatzeari, aurretik ere egin zen moduan. Beraz, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak, SPRI-ri 10 urteko luzapena emateko proposatu dio Jaurlaritza-Kontseiluari, 1989. urtean emandako mailegua amortizatu dezan.

Lan eta Gizarte Gaietarako

GIZARTE ZERBITZUETAN ERAKUNDE ARTEKO LANKIDETZA KOORDINATUKO DUEN ORGANOA SORTU DA

Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren egitekoak, osaera eta oinarritzko funtzionamendu-jarraibideak arautuko dituen dekretua onartu du Jaurlaritzaren Kontseiluak. Organo hori arduratuko da Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen arteko lankidetzaz eta koordinazioa egituratzeaz, eta Autonomia Erkidego osoko prestazioak eta gizarte-zerbitzuak modu koherente eta harmonikoan garatuko direla bermatuko du. Hau da, hiru lurraldeen artean dauden desorekak ezabatuko ditu eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren batasuna bermatuko du.

Bere eginkizun nagusien artean txosten bat egitea egongo da. Txosten hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio-eskaintzari buruzkoa izango da, eta nahitaez egin beharko du administrazioak; horrez gain, herritarren eskubide diren laguntza-motak jasoko ditu eta horien ezaugarriak zehaztuko ditu.

Horrez gain, nahitaezko txostenak emango ditu gizarte zerbitzuen arloko izaera orokorreko lege-aurreproiektuei buruz, plan estrategikoari buruz, autonomia-erkidegoaren esparruko sektore-planei buruz eta plan bereziei buruz. Era berean, Erakunde arteko Organoari ondokoen berri eman beharko zaio, besteak beste: gizarte-zerbitzuen arloan foru-aldundiek eta toki-erakundeek ematen dituzten arauak; onartzen diren lurralde- eta toki-mailako sektore-planak eta plan bereziak; horien betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa; baita aurrekontuen onarpena eta aurrekontu-betearazpenaren eboluzioa ere, hiru administrazio-mailatan.

Horrela, organo horretan eztabaidatu eta adostuko dira sistemaren kudeaketa, arreta eta kohesioaren kalitateari buruzko estrategia nagusiak. Organoak hamabi kide izango ditu; sei Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak izango dira, eta beste seiak aldundien eta udalen ordezkariak. Presidenteak Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko sailburua izango da.

Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza

EUSKO JAURLARITZAK 350.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ZUZENA ONARTU, ESNEZALE AUTOMATIKOAK JARTZEKO

Gobernu Kontseiluak 350.000 euroko dirulaguntza zuzena onartu du, kalean esnezale automatikoak jartzeko. Behi-esnetarako izan behar dute, eta dirulaguntzak Bizkairako eta Arabarako balioko du. Jendeak oso ondo hartu ditu, eta abeltzainei bestela baino diru gehixeago uzten diete.

Euskal Autonomia Erkidegoan, gaur egun, horrelako 17 makina daude, zazpi Bizkaian, lau Gipuzkoan eta sei Araban. Abeltzaintzat, jakina, ahalegin hori ez da musu-truke izan, eta dirulaguntza hauen helburua, hain zuzen ere, ahalegin hori diruz laguntzea da.

Makina horietan, eguneko esnea saltzen da, pasteurizatua eta bertakoa, litroa euro batean, eta botila etxetik eramaten ez duenarentzat, beste 40 zentimo, botilaren truke.

Pilar Unzalu Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak zuzentzen duen saila ere gauzak horrela egitearen aldekoa da, abantaila bat baino gehiago dakar-eta: abeltzainek diru gehixeago irabazten dute, ustiategi iraunkorrak lortzeko bidean ere aurrera egingo dugu, eta kaleko jendeak, berriz, etxera garai bateko behi-esne paregabe hura eramateko aukera du, berriro ere.

Euskal Herrian, abeltzainak berak hasi ziren makina hauek jartzen, Suitzatik eta Italiatik ikasita, nahiz eta hemen aldaketa batzuk egin behar izan dituzten, irisgarritasun-arauak betetzearren.

Zuzeneko salmenta-modu honen arrakasta ikusita, abeltzainak halako makina gehiago jarri edo ez aztertzen ari dira, Euskal Autonomia Erkidegoko beste leku batzuetan. Gaur egun baditugu Gasteizen, Bilbon, Donostian, Ordizian, Zallan, Balmasedan, Murgian, Araian edo Agurainen, besteak beste.

Gobernu Kontseiluak onartu duen dirulaguntza hau Bizkaia Esnea kooperatibak (200.000 euro) eta Araba Esneak (150.000 euro) jasoko dute. Laster, antzeko beste dirulaguntza bat onartuko dugu, Behemendi Landa Garapen Elkarterako (Gipuzkoan aritzen da).

Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza

JAURLARITZAK 150.000 EUROKO DIRULAGUNTZA EMAN, PRODUKTU EKOLOGIKOAK MERKATURATZEKO AZTERLAN BAT EGITEKO

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluari 150.000 euroko dirulaguntza ematea onartu du, produktu ekologikoen arloko komunikazio- eta merkaturatze-plan integral bat egiteko.

Azterlan hori +Euskadi 09 Planaren barruan egongo da (arduraz kontratatzeko eta kontsumitzeko da plan hori). Kontua azken batean da ekoizpen ekologikoa banatzeko merkatu-bide bat antolatzen saiatzen, arlo horretako produktuak marka bakar baten baitara biltzea, eta hartara, arlo horretako eskari bereziari erantzuna ematea.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak azterlan hori egingo du, hain zuzen ere, produktu horiek merkaturatzeko beste bide batzuk zabaltzearen eta Euskal Autonomia Erkidego osorako korporazio-irudi erkide bat aurkitzearen. Kontseilu hori 2006.ean sortu zen, zuzenbide publikoko korporazio modura.

Proiektu honen bidez, hortaz, marka-irudi erkide bat errotzen lagundu nahi dugu, arloari berari ekimen gehiagorako bidea irekitzeko, parte hartzeko oinarria zabaltzeko, beste ekoizle eta jaki-egile batzuen eta beste erakunde pribatu batzuen interesa erakartzeko (ea zerbitzu gehiago eta hobeak ekartzen dituzten), zerbitzu gehiago sortzeko (esate baterako, banaketarako plataformak), eta ahaleginari etekina ateratzeko.

Kultura

IZENDAPENAK

Arrazoi pertsonalak direla eta, Ramon Etxezarretak Kultura Saila utzi egingo du. Karguan egin dituen zerbitzuak eskertu egin nahi dizkiogu. Gorabehera hori baliatuz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza berrantolatu egingo da. Horrenbestez, Lourdes Auzmendik, orain arte Euskara Sustatzeko zuzendari izan denak, Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako sailburuorde kargua hartuko du.

Patxi Martínez de Marigortak eta Eugenio Mujikak beren karguetan jarraituko dute: Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendari eta HABEren zuzendari izango dira, hurrenez hurren. Taldean kide berriak sartuko dira: Begoña Muruaga izango da Euskara Sustatzeko zuzendari berria, eta Iván Igartua Ugarte Koordinaziorako zuzendaria.